

## EUSKARAK IRAUN

**Xabier Isasi**

*EHU/UPVko irakaslea*

*Helburua, azken finean, giza-mintzairari buruzko teoria sozial bat eraikitzean datza; ezagutzen ditugun gertakizun ugari eta konplexuak zenbait legetan bildu, horrela, alderdi batetik, deskribapenak erakutsitako gertakizunaren koalitatega ezberdina lekarke: argitasuna eta sinpletasuna. Eta, beste alderditik, gertakizun zehatza testuinguru orokor batean kokatu, zein, bereziki, Euskararen desegituraketa eta orekaketa azalpena gertakizun zehatza delarik, beste edozein giza-mintzairaren desegituraketa eta orekaketa azalpena izan baitzitekeen<sup>1</sup>.*

Teoriak edo zehatzago, teoriaren aplikapenak bideratzen du hizkuntza gutxiagotutakoaren berreskurapena. Horrela beharko luke, behintzat. Esate baterako, hizkuntza jakinaren desagertzea edo ordezkapenaren faktore erabakigarriak ezagutuko bagenu, beroiek manipulatuaz desagertzea edo ordezkapena ekidin genezake.

Horrela, euskararen (*corpus*) zatiketa zenbait euskalki eta azpi-euskalkitan desagertzearen seinalea zelakoan, orain dela 30 urte euskara *batua* sortzea erabaki zen. Euskara *batua* hizkuntzaren biziraupenerako ezinbesteko baldintza zela erdieste ez zen, inolaz ere, *erabaki estatistikoa*. Hau da, gaur egun ezagutzen dugun euskara estandarra, *batua* deiturikoa, ez zegokion duela 30 urteko euskalki hedatuenari. Eredu estandarra hautatzerakoan, arrazoi estatistikoaz gain, beste arrazoi batzuk erabili ziren. Sarri, arrazoi *sustantiboak* arrazoi *estatistikoak* baino garrantzi handiagoak baitira. Euskara estandarren *corpus* azehazterakoan, egokitasuna,

erabileraren hedadura, tradizioa... arrazoi *linguistikoak* batik bat izan ohi dira.

## DEMOLINGUISTIKAZ

Euskararen *estatusa* aztergaia denean, berriz, eredu teoriko ezak eraginda edo, arazoen ebazpenetan estatistikari egozten zaiona berez dagokiona baino askoz gehiago dela uste dugu. Ohiko arazoa, bestalde, estatistika maiz oso modu maltzurrian erabiltzen da eta. Alderdi honetan aurreneko arazoa behaketa estatistikoetarako erabiltzen den kategorizazioan datza. Hau da, eragiketa sinpleena, zenbaketa, darabilgun kategorizazioaren menpekoa da; kategoriek *osotasunaren* zatiak definitzen dituzte edo, beste modura esanda, unibertsoaren azpimultzoak zehazten dituzte.

Euskaldunen zenbaketa masiboa eta azterketa estatistiko sakonak egitea Euskal Herrian gauza nahiko berria da. Gure ustez, bi argitalpenek markatzen dute aro berri honen hasiera: *Euskararen Liburu Zuria* eta *Euskararen Borroka*. Biak 1.978koak. Horien ostean, zentsuak (1981 eta 1991)<sup>2</sup> eta Udal-Erroldak (1.986 eta 1.996) **egoera soziolinguistikoari buruzko datuen iturburu ofizialak** bihurtu dira. Zentsu eta Udal-Erroldetako datuetan oinarrituta EAEko EUSTATEk zein Nafarroako Estatistika Zerbitzuak argitalpen ugari egin izan dituzte, gehienak sail jakin bateko edo besteko urtekari estatistikoak. Hego Euskal Herriko erakunde publiko horien ardurapean dago, hain zuzen, zentsu eta Udal-Erroldetako datuen ustiaketak estatistikoa. Gogora dezagun informazio hori ofiziala izateaz gain publikoa dela eta, besteak beste, Soziolinguistikazko Mapen (1.983, 1.994 eta 1.997 —argitaratzeke—) argitalpenetarako erabili izan da.

Ikuskapen labur honetan ezin ahantz dezakegu SIADECOK urte luzeetan egindako ekarpena bai metodologi alorrean bai datuen ustiaketa estatistikoetan. SIADECOK, Iñaki Larrañaga buru dela, Euskal Herriko makina bat udalerritan euskararen egoeraren azterketa sakonak eginak ditu. Halaber, SIADECOK hasitako ildo metodologikoari jarraituz, EKBk Euskal Herri osoan 1.989 eta 1.993 urteetan buruturiko euskararen kale erabilera-  
ren neurketak ezinbesteko erreferentzia direla esan beharra dago. Aipatzeke geratzen dira hainbat tesi eta ikerketa, eta udalerrri askotan (Eibarko ...eta kitto, Arrasateko AED...) tokian tokiko araketa zabalak.

Aparte utzi digu nahita 1991 eta 1996ko Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkestak. Ia hogeitau urte datuak biltzen eman eta gero, gogoetarako parada paregabea heldu zaigula uste dugu. Oro har, datu bilketa eta neurketak ezaguturik honako hauek esan ditzakegu:

1. Zentsuak, Udal-Erroldak eta Inkestak hizkuntza politikarako tresnak baino hizkuntza politika egiteko modua bihurtu dira; izan ere, hiru Soziolinguistikazko Mapak eta Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta bik ez dute ekarri beharreko normalkuntzaren plangintzarako aurrerapen handirik. Itxuraz, sarri askotan datuak biltzea helburu bihurtu da, zertarako edo nola erabili behar diren jakin gabe.

1) J.M. Sánchez Carrión (1987) *Un Futuro para nuestro Pasado* (23. or.).

2) 1.981eko Zentsuan euskarari buruzko datuak soilik Euskal Autonomi Elkartean jaso ziren, hortik aurreragoko zentsu eta Udal-Erroldatan datuak Hego Euskal Herri osoan bildu ziren.

3) *Euskararen borroka* (Jakin aldizkaria 1983, 26/27 zkia. 28 eta 29 or.)

**«Teoriak edo zehatzago,  
teoriaren aplikapenak  
bideratzen du hizkuntza  
gutxiagotutakoaren  
berreskurapena. Horrela  
beharko luke behintzat.  
Esate baterako,  
hizkuntza jakinaren  
desagerpen edo  
ordezkapenaren faktore  
erabakiorrak ezagutuko  
bagenitu, beroiek  
manipulatuaz  
desagerpena edo  
ordezkapena ekidin  
genezake»**

2. Informaziorik ia ez izatetik informazio gehiegi izatera heldu gara. Zenbait alferrikako, asko erredundante eta guztia bateratasun metodologiko eskasarekin.

## HIZTUNEN SAILKAPENAZ

Bildutako datuen kudeaketa eraginkorra lortzeko eredu teorikoa beharrezkoa da eta, horrekin batera, baita metodologia sendo eta argia ere. Metodologiaz mintzo behar dugu, beraz.

Ez da lehenengo aldia hiztunen sailkapenaz hitz egiten dugula. Aldizkari honetan bertan 13/14. alean *Hiztun erroldak, labelak eta euskaldunak* artikuluan (1994ko azaroa) horren garrantziaz idatzi genuen. Orain, berriro ere, gai berari heldu behar diogu; izan ere, errealtatearen dekodeketarako kategorizazioa ezinbestekoa dugu. Hau da, sortutako kategoriak errealtatearen antolaketa eta eraldaketarako erreminta kontzeptualak dira; zenbat eta zorrotzagoak izan eta haien erabilera zenbat eta hedatuagoa izan orduan eta eraginkorragoak dira.

Oharrak ohar, gogora dezagun 1.983. urtean proposatzen zen hizkuntza egoeraren sailkapena<sup>3</sup>, .../... sei aldiune bereiz daitezke, ondoko era honetan laburbilduko ginituzkeelarik:

1. **Elebakartasun euskalduna** Biztanleria osoak euskara eta soilik euskara egiten du. Euskara da biztanleen ohizko hizkuntza eta bakarra.
  2. **Elealbotasuna** Elealbotasuna ematen da biztanleriaren parte batek hizkuntza bat ezagutzen eta erabiltzen duenean, eta beste parteak, era berean, bere hizkuntza alternatiboa erabili ohi duenean.
  3. **Elebitasuna** Elebitasuna, gertakari sozial bezala, biztanleria osoak inongo bereizkuntzarik gabe bi hizkuntza mintzatu erabiltzen dituen ematen da. Horietako bakoitza gizarte-bizitzako eremu jakinetarako erabil daiteke, batoren edo bestearen prestigioak eta botere sozialek banaketa desberdinik ez dutelarik.
  4. **Diglosia** Biztanleria osoak bi hizkuntza erabiltzean, baina bi hizkuntzen erabileraren banaketa, prestigioaren, eraginaren edo botere sozialaren «banaketa desberdin» bati derrigor lotua doanean, ematen da diglosia. Gisa horretako banaketak hizkuntza batek bestea menpean dakar.
  5. **Diglosia marjinala** Hizkuntz egoera hau, honako honetan bereizten da aurreko egoetatik: bi hizkuntzetako bat biztanleria osoak ezagutu eta erabiltzen duen bitartean, bigarrena gutxiengo batek hitz egiten du eta, aldi berean, hizkuntzen estratifikazio soziala dakarren hizkuntz erabileraren banaketa ematen da, bata bestea menperatuz.
  6. **Gaztelaniatzko elebakartasuna** Biztanleria osoak hizkuntza hau ezagutuz euskara zipitzik ere jakingo ez lukeen kasuan emango litzateke.
- Begi bistakoa da, hizkuntza egoeraren sailkapen hau zaharkitu geratu zaigula; gainera, sailkapen horrek ez digu balio hiztunak sailkatzeko. No-

lanahi ere, deskribapenerako baliagarri iruditzen zaigu. Are gehiago, sailkapen horretan bi alderdi azpimarratuko genituzke: batetik, ikuspegi dinamikoa; kategoriak elkarrekiko osogarriak dira, sailkatzeko posibilitate guztiak bere horietan agortuz; eta, bestetik berriz, egoeren artean halako mailakatzea antzeman daiteke; hots, mutur batetik abiatu (elebakartasun euskalduna) beste muturrerainoko bilakaera (gaztelaniazko elebakartasuna). Mutur horiek, hain zuzen, sailkapenaren mugak adierazten dituzte. Sail-kapen soziolinguistikoa dela esan beharrik ez dago.

Urteak joan urteak etorri, kategorizazio bat baino gehiago erabili izan dira. Interesatzen zaiguna *Euskararen Jarraipena* (Eusko Jaurlaritz 1995) argitalpenak darabilena da, I. eta II. *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inketetan* erabilitakoa, hain zuzen ere. Bertan esaten denez, *ikerketa honetan egindako hiztunen tipologia ez du zer ikusirik honen aurretik egindakoekin*<sup>4</sup>. Hiztunen tipologia berri baten aurrean gaude, beraz. Aurrekoak baino hobe edo orain arte erabilitakoak baino zorrotzagoa edo eraginkorragoa izan behar; bestela, zertarako aldatu?

Azter dezagun sailkapen berri hau, bada. Aurrenik eta behin hona hemen proposatutako hiztun motak eta dagozkien definizioak:

1. *Euskaldun elebakarrak*: erdaraz onqi edo nahiko onqi ez dakitenak.
2. *Elebidunak*: bietan onqi edota nahiko onqi dakitenak.
  - 2.1. *Euskal elebidunak*: erdaraz baino erraza hitz egiten dute euskaraz.
  - 2.2. *Elebidun orekatuak*: antzer hitz egiten dute euskaraz zein erdaraz.
  - 2.3. *Erdal elebidunak*: euskaraz baino erraza hitz egiten dute erdaraz.
3. *Elebidun hartzaileak*: euskaraz hitz egiten zertxobait jakinda, onqi edo nahiko onqi ulertu edo irakurtzen dakitenak.
4. *Erdaldun elebakarrak*: ez dira qai euskaraz zertxobait hitz egiteko ezta onqi edo nahiko onqi ulertu edo irakurtzeko ere.

Itxuraz, tipologia honek edozein hiztun eta hiztun guztiak sailkatzeko egokia dirudi. Arretaz aztertuta, oster, euskaldun eta erdaldun *elebakarren* definizioak, zeinek bere hizkuntza baina, beren eduki definigarrietan bat ez datozela antzeman daiteke. Hau da, *erdaldun elebakarra euskaraz zertxobait egiteko ere gauza ez dena bada, euskaldun elebakarrak erdaraz zertxobait egiteko ere gauza ez dena izan behar luke*. Zein hiztun tipori esaten zaio *euskaldun elebakarra*? Gure aburuz, ustezko euskaldun elebakar horiek *euskal elebidun hartzaileak* besterik ez dira. Izan ere, adierazten den moduan<sup>5</sup>, hiztun horiek erdaraz hitz egiten *zertxobait*, eta irakurtzen agian gehiago, badakitela ulertu behar dugu.

Nolanahi ere, metodologiaren ikuspuntutik adierazitakoari lotuz, sailkapen alboratua dela dudarik ez daukagu, tankera horretako sailkapena zuzena izateko, bi *elebidun hartzaile* mota kontutan hartu behar baitugu, *euskararen aldeko* eta *erdararen aldeko elebidun hartzaileak*, alegia.

4) *Euskararen Jarraipena* 1.995, 56. or.

5) *Euskararen Jarraipena* 1.995; % 76-ak hain zuzen, 56. or

**«Euskaldunen zenbaketa masiboa eta azterketa estatistiko sakonak egitea Euskal Herrian gauza nahiko berria da. Gure ustez, bi argitalpenek markatzen dute aro berri honen hasera: Euskararen Liburu Zuria eta Euskararen Borroka. Biak 1.978koak. Horien ostean, zentsuak (1.981 eta 1.991) eta Udal-Erroldak (1.986 eta 1.996) egoera soziolinguistikoari buruzko datuen iturburu ofizialak bihurtu dira»**

Erdal elebidun hartzailea definiturik egon arren, *euskal elebidun hartzailea* ez da aipatu ere egiten. Batetik, kategoria hori definitzeko ematen den *elebidun hartzailearen* adiera hartzen badugu, eta *euskaraz* esan beharrean *erdaraz* jartzen badugu; eta, bestetik, *euskaldun elabakarrari* *erdaldun elebakarraren* pareko definizioa egotzen badiogu, hiztunen tipologia honela geratuko litzaiguke:

1. *Euskaldun elebakarrak*: ez dira gai **erdaraz** zertxobait hitz egiteko ezta *ongi* edo *nahiko ongi* ulertu edo irakurtzeko ere.
2. (Euskal) *Elebidun hartzaileak*: **erdaraz** hitz egiten *zertxobait* jakinda, *ongi* edo *nahiko ongi* ulertu edo irakurtzen dakitenak.
3. *Elebidunak* bietan *ongi* edota *nahiko ongi* dakitenak.
4. (Erdal) *Elebidun hartzaileak*: *euskaraz* hitz egiten *zertxobait* jakinda *ongi* edo *nahiko ongi* ulertu edo irakurtze dakitenak.
5. *Erdaldun elebakarrak*: ez dira gai *euskaraz* zertxobait hitz egiteko ezta *ongi* edo *nahiko ongi* ulertu edo irakurtzeko ere.

Ikus daitekeenez, hiztunen tipologia honek *Euskararen jarraipena* (1.995) argitalpenak erabiltzen duena baino kategoria bat gehiago dauka, (*euskal*) *elebiduna hartzailearena*, alegia.

Horiek horrela, bi dira *Euskararen jarraipena* deneko hiztunen sailkapenak betetzeke dituen ezinbesteko baldintzak: sailkapenaren simetria eta kategorien arteko distantzien egonkortasuna. *Elebidunak* deritzan kategoriak, sailkapenaren erdiguneak, hain zuzen, muturrak harengandik distantzia beretsuan beharko lituzke. Grafikoki honela adieraz dezakegu:

| 1                     | 2                             | 3          |       |       | 4                          | 5                    |
|-----------------------|-------------------------------|------------|-------|-------|----------------------------|----------------------|
| Euskaldun elebakarrak | (Euskal) elebidun hartzaileak | Elebidunak |       |       | Erdal elebidun hartzaileak | Erdaldun elebakarrak |
|                       |                               | 3.1        | 3.2   | 3.3   |                            |                      |
|                       |                               | Euskal     | Oreka | Erdal |                            |                      |

Ikuspegi honetatik, muturrei egotzen zaizkien ezaugarriak, hizkuntza trebetasunak, nork bere hizkuntzatan baina baliokideak izan behar dira. Sailkapen *berri* horretan, ostera, bere horretan ulerturik, *euskaldun elebakarrei* egotzitako ezaugarriak zuzenago dagozkio (*euskal*) *elebidun hartzaileak* delako kategoriari, beste edozeini baino.

Batetik, itsumustuka sinetsi nahi genuke *Euskararen jarraipenak* adierazitako beste euskaldun elebakar Euskal Herrian dagoenik, izena duena ei da, baina, tamalez, kasu honetan oker erabilitako izena delakoan gaude; azken buruan, lehen azaldutakoarena bide, *euskaldun elebakar* agertzen diren gehienak (*euskal*) *elebidun hartzaileak* besterik ez dira eta.

Arestian esan dugunez, BAT aldizkarian bertan, 1994ko azaroko 13/14. zenbakietan, hiztunen sailkapenaren arazoa landu genuen; artean, funtsean

*tipologi estatistikoa eta hizkuntza politikarako hiztunen tipologia* bereizten genituen. Lehen, zentsu eta udal-erroldeetatik eratortzen den hiztunen kategoriei dagokie eta, ondoren datorrena, hizkuntza politikarako erabili ohi den hiru kategorietako (*euskaldunak, ia-euskaldunak eta erdaldunak*) tipologiari esaten diogu. Jakina denez, hiztun tipo horiek baino oinarrikoago sailkapena hizkuntzak berak adierazitakoan legoke. Hau da, *euskaldunak, euskara dutenak* dira eta, gainontzekoak, *erdaldunak*; edo, bestera esanda, *euskara ez-dutenak*. Banaketa *dikotomikoa* eta oso eraginkorra dela ez dago azaldu beharrik, baina, aldi berean, hizkuntza politikaren eremuan edozein plangintzarako kamutsegia.

Dena den, lehen eta orain adierazitako horrek guztiak *Euskararen jarraipena* (1.995) argitarapenaren berrirakurketa dakar ekarri. Hiztunen sailkapenerako metodologia egokiagoak ikuspegi gordinagoa ekarriagatik, gure ustez, Euskal Herriko benetako egoera soziolinguistikoari zorrotzago lotzen zaio. Azken buruan, *hiztunen tipologia estandarizatzeko garaia* heldu zaigula uste dugu.

## HIZTUNEN KOPURUAZ

Alderdi metodologikoaren barruan azterketa estatistikoari heldu behar diogu. Hasieran esan dugunez, Hego Euskal Herriko euskaldunei buruzko *datu ofizialak* Zentsu eta Udal-Erroldeetakoak dira. Zentsu eta Udal-Erroldeetako datuak biztanleria osoari dagozkio, norbanakoak edo famili buruak bete behar ditu inprimakiak. Datu bilketa hauetan eragin dezaketen errore mota desberdinak honela sailka genitzake:

1. Galdera edo itaunen alborapena. Zentsu edo Udal-Errolde orrietan erabiltzen diren galderen forma eta edukiei dagokie, galdetzen dena eta nola galdetzen den, alegia. Ez baita gauza bera euskara *asko* edo euskara *ondo* jakitea, edota euskara *nekez* edo euskara *zerbait* jakitea. Galderen edukiak eta formak erantzunetan eragiten dute. Arazo honek datuetan **benetako alborapena** ekar dezake.
2. Subjektuaren erantzuteko joera (jarrerak, aurriritziak, etab.). Egia da galdera bati erantzuterakoan gutariko bakoitzak irizpide ugari erabiltzen dugula. Benetan dena baino aldekoagoak edo kontrakagoak garen edo nahiko genukeena islatu nahi dugu gure erantzunetan. Hori, neurri batean behintzat, galderetan bertan kontrola daiteke, galdera argiak eginez edota erantzun aukera-eskala erraza eta itxia erabiliz, esate baterako. Nolanahi ere, *subjektuaren erantzuteko joera normaltasunez* banatzen delarik, biztanleria osoaren azterketan **ez du alborapen esanguratsurik** sortarazten. Beste era batera esanda, datu estatistikoetan zoriak zuzentzen du norbanakoak ekar zezakeen erantzunetako alborapena.
3. Bildutako datuen mekanizazioa eta ustiaketa. Gaur egungo baliabide informatikoei esker datuen mekanizazioan ager daitekeen errorea oso txikia da; gainera, errore sorburu horrek, *zorizkoa* izaki, ez dakar alborapenik datu estatistikoetan. Datu estatistikoaren ustiaketan, berriz, erreminta

6) *Euskararen Jarraipena II* 25. or.

«**Hiru  
Soziolinguistikazko  
Mapak eta Euskal  
Herriko  
Soziolinguistikazko  
Inkesta bik ez dute ekarri  
beharreko  
normalkuntzaren  
plangintzarako  
aurrerapen handirik.  
Itxuraz, sarri askotan  
datuak biltzea helburu  
bihurtu da, zertarako edo  
nola erabili behar diren  
jakin gabe**»

kontzeptualek ekarten dute alborapena; hau da, egiten diren datuen agerpena, azalpena eta ondorengo azterketak berez alboratuak dira. Maila honetan ustiaketaren arduradunak bere ikuspegia ezartzen du. Horretan datza, hain zuzen, alborapena.

Horiek guztiak horrela, 1991ko Zentsuan EAEn 542.387 eta Nafarroan 51.147 euskaldun (*euskaraz ongi hitz egiten dutenak*) daudela esaten denean, *zentzu hertsian* **egia da** Egia da errore estatistikorik apenas ez dagoelako, eta egia da Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak esaten dutelako. Legeak, arauak, zonifikazioak, aurrekontuen partiketak... laburbilduz, errealitatean eragiteko informazioa hori berori delako.

Beste arazoa da, *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkestaren* arabera, 1991n Euskal Herrian 23.500 *euskaldun elebakar* zeudela esaten denean, eta bost urte geroxeago (Euskararen Jarraipena II 20. or.) euskaldun horiek 12.400 besterik ez zirela esaten denean. Hauek literalki **ez dira datu ofizialak**, eta **estatistikoki estimazioak** dira. Euskaltzale askorentzat horrenbeste euskaldun elebakar izatea izan da *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesten* daturik erakargarriena. Euskaldun horiek 50 urtetik gorakoak dira eta gehienek 64 urte baino gehiago dituztela<sup>6</sup> kontuan hartzen badugu, bost urteotan galdutako *euskaldun elebakarren* % 47k doluminez jarri gaitu. Horren zaharrak izanik, 1.991-1.996 bitartean 11.100 *euskaldun elebakar* hil zaigula pentsa dezakegu, eguneko 6 hain justu. Martxa horretan hil-kanpaiek 2.067 egun gehiago iraungo dute: 2.000. urterako ez da euskaldun elebakarrik izango, *euskaldun elebakarrek* ez dute XXI. mendea ezagutuko.

Negar gurari eutsiz, hileta-elizkizunetara joan baino lehenago, *estimazio estatistikoez* hitz egin dezagun. 1991ko eta 1.995/6ko *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkestetan* labinak erabili ziren, hurrenez hurren, 5.017 ( $n_1$ ) eta 6.359 ( $n_2$ ) 15 urtetik gorako pertsonaz osaturiko labinak, zehazki. Argitaratutakoaren arabera, 1.991n Euskal Herri osoko 2.371.200 biztanleetatik 23.500 *euskaldun elebakar* ziren ( $p_1=0,00991$ ); 1.996an, berriz, Euskal Herri osoko 2.428.100 biztanleetatik 12.400 ziren *euskaldun elebakar* ( $p_2=0,00511$ ). Proportzio horiek,  $p_1$  eta  $p_2$  labinetan behatutakoen bertsuak direla hartuz, labinetan 1.991n 50 eta 1.996an 33 *euskaldun elebakar* aurkitu zituztela pentsa dezakegu.

Biztanleria osoko proportzioa estimatzerakoan, *errore* maila jakin bat ezartzen dugu, ez baitago esaterik besterik gabe 5.000 edo 6.000 pertsonen artean behatutakoa besterik gabe 2.000.000tik gorako biztanleria osoari dagokionik. Demagun gure estimaziorako % 95eko konfidantza maila ezarri nahi dugula (bi aldetako testean % 2,5eko esangura maila); orduan, **ezarritako konfidantza mailari dagokion tartea** honela kalkula dezakegu:

$$p_0 - s_{p_0} z_{\frac{\alpha}{2}}; p_0 + s_{p_0} z_{1-\frac{\alpha}{2}}$$

Non:  $p_0$  labinetan behatutako proportzioa,

$s_p$  proportzioaren errore estandarra eta

$z_{\alpha/2}$  eta  $z_{1-\alpha/2}$  ezarritako esangura mailaren arabera puntuazio tipikoak.

Proportzioaren errore estandarra ( $s_p$ ) lagin jakinekotik abiatutako estimazioan gerta daitekeen batez besteko errore mailari dagokio. Horrela kalkulatu da:

$$s_p = \sqrt{\frac{p_o(1-p_o)}{n}}$$

Formula horiek erabiliz, 1.991ko eta 1.996ko *euskaldun elebazarren* kopurua (% 95ekoa da konfidantza maila) honako hau zen:

|         |                              |
|---------|------------------------------|
| 1.991n  | 17.000 eta 30.000 bitartekoa |
| 1.996an | 8.146 eta 16.654 bitartekoa  |

Azterketa estatistikozko informazioa modu batean edo bestean emateak errealitatearen irakurketa desberdinak ekar diezazkiguke. Datu bertsuak erabiliz, gauza zeharo desberdinak esan daitezke. Kontua ez dabil *laerdi hutsik* edo *erdi beterik* ote dagoen jakitea, ez da norbanakoaren hautematea egoeraren diagnostika ona ala txarra den erdiesten duena. Informazio soziolinguistikoa kudeatu eta datuak ustiatzen dituenak beti helarazten digu irakurketa jakin bat, batzuetan ageriko adierazpenak azalduz eta, askotan, zeharka zerbait iradokituz.

Nolanahi ere, ikerketetan ohikoa (da) eta metodologikoki zilegi da esatea inkesten arabera Euskal Herrian 1.991n 23.500 eta 1.996an 12.400 *euskaldun elebazar* zeudela. Galdera, berriz, honako hau da: zer egin da *euskaldun elebazar* horiekin? Zer eskaintzen zaie? Soziolinguistikoki zer adierazten du hiztun talde hori izateak? Hizkuntza politikak zer bilatu behar du, talde hori desagertzea edo bere izatea areagotzea eta zabaltzea?

## AZKENIK, INKESTAZ

Gizarte zientzietan estatistika ezinbesteko tresna da eta izango da. Hala ere, azterketa estatistikoak erabiltzen ditugunean, iraganekoaz ari garela jakin behar dugu, iragan hurbila, agian, baina, iragana, azken finean. Zentsu eta Udal-Errodetako datuak bildu eta eskuratzen dugunaren artean gutxienik urtebete igarotzen da. Lehenengo *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkestaren* emaitzek lau urte eman behar zituzten argitaratzeko, bigarrenak, ordea, urtebete. Oraina gisa aurkezten zaiguna duela urtebe-

**«Zentsu edo Udal-Errolda orrietan erabiltzen diren galderen forma eta edukiei dagokie, galdetzen dena eta nola galdetzen den alegia. Ez baita gauza bera euskara asko edo euskara ondo jakitea, edota euskaraz nekez edo euskaraz zerbait jakitea. Arazo honek datuetan benetako alborapena ekar dezake. Subjektuaren erantzuteko joerak normaltasunez banatzen delarik, biztanleria osoaren azterketan ez du alborapen esanguratsurik sortarazten. Gaur egungo baliabide informatikoei esker datuen mekanizazioan ager daitekeen errorea oso txikia da, eta ez dakar alborapenik datu estatistikoetan. Erreminta kontzeptualek ekarten dute alborapena. Maila honetan ustiaketa arduradunak bere ikuspegia ezartzen du. Horretan datza, hain zuzen, alborapena»**

**«Azterketa estatistiko bakanak estatikoak dira, momentu jakineko deskribapenak dira alegia. Mugimendua eta joerak antzemateko inferentziak egin behar ditugu, eta horietan beti dago arrisku maila bat edo beste. Joeren azterketarako, analisiaren ikuspegitik, inkesten artean gertatzen diren aldaketak dira interesgarrienak. Gertaeren arteko erlazio dinamikoak ezagutzeko eta prospektiba egiteko oso emankorrak dira eta»**

te edo lau urteko egoerari dagokio. Abiada biziko aldaketa-egoeran deskribaketa horiek denborak horizkatutako argazkiak besterik ez dira batzuetan.

Bestalde, azterketa estatistiko bakanak estatikoak dira, momentu jakineko deskribapenak dira, alegia. Mugimendua eta joerak antzemateko inferentziak egin behar ditugu, eta horietan beti dago arrisku maila bat edo beste. Joeren azterketarako, analisiaren ikuspegitik, inkesten artean gertatzen diren aldaketak dira interesgarrienak, gertaeren arteko erlazio dinamikoak ezagutzeko eta prospektiba egiteko oso emankorrak dira eta.

Esanak esan, zundaketak, inkestak eta gainerako teknika eta tresna estatistikoak oso baliagarriak dira, izan ere, gizarte errealitate alderdi asko ezagutu ahal izateko bestelako tresnarik ez dugu.

Hizkuntzen arteko ukipen egoera izatez konplexua eta anitza da. Tresneria estatistikoaren bitartez, konplexutasuna adierazle sinpleetara ekartzea dugu helburu, eta, aniztasuna, neurri batean, behintzat, bakan-tzea. Hitz batez, helburua ulergarritasuna da. Ulergarritasun bila abiatu-rik, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa zer-nolakoa den aztertze-ko inkestetan erabilitako irizpide eta datuei lotuko gatzaizkie. Azkeneko *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkestaren* aurkezpen berrian bost atal bereizi dituzte:

1. Ama-hizkuntza edo lehen hizkuntza.
2. Hizkuntza-bilakaera.
3. Hizkuntza-gaitasuna
4. Nortasuna eta euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak
5. Euskararen erabilera.

Zerrenda horretan, egoeraren azalpenerako erabili ohi diren *aldagai azalgarri* batzuk laburbiltzen dira. *Jatorrizko hizkuntza, hizkuntza-gaitasuna, euskararen erabilera, nortasuna* eta *jarrerak*, substantiboki bost faktore horiek dira gehien nabarmentzen direnak. Haiei atxikita, besteak beste, *adina, lurraldea, elebidunen tipologia, gurasoen hizkuntza-gaitasuna, etxeko erabilera* eta *lagunarteko erabilera* agertzen dira. Azken hauek ere *aldagai azalgarriak* dira.

Ez da gure asmoa inkesten emaitzen berraztertzea bere osotasunean, beste ikuspegia agertzea baizik, hala ere, inkesten emaitzen aurkezpenerako bost atal horietatik aurreneko hirurei buruzko aipamen labur batzuk eka-rrri nahi genizkizueke eta, amaitzeko, euskararen erabilera eta inkesteta-rako erabiltzen diren ekarpen teorikoei buruzko zenbait gogoeta. Horre-tarako argitaratutako datuak beste moduan antolatuak aurkeztuko diz-kizuegu eta zenbait ondorio eta gogoeta erantsiko ditugu.

## JATORRIZKO HIZKUNTZA

Ikasitako aurreneko hizkuntzari edo hizkuntzei (3 urte bete baino lehen-

go) *ama-hizkuntza* edo *lehen hizkuntza* deitzea baino, jatorrizko hizkuntza deitzea nahiago dugu. Aurreneko hizkuntzak hiztun bakoitzaren hizkuntza-*curriculumaren* abiaburua zehazten du eta, berau ezagutuz, hizkuntza(k) galdu, eutsi edo ikasten duen jakin dezakegu. Hizkuntzen arteko ukipen egoeran hizkuntzen transmisioari buruz zerbait esateko *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesten* emaitzak bi aldagaien arteko kontingentzi taulan aurkeztuko genituzke: *gurasoen hizkuntza jakitea* eta *seme-alabei transmititutako hizkuntza*.

1. **Taula:** *Guraso elebidunak eta seme-alabei transmititutako hizkuntza*.

| Guraso elebidunak <sup>7</sup> | Transmititutako hizkuntza |            |            |
|--------------------------------|---------------------------|------------|------------|
|                                | Euskara                   | Erdara     |            |
| Biak                           | %88                       | %12        | <b>%20</b> |
| Bietako bat                    | %34                       | %66        | <b>%7</b>  |
| Bat ere ez                     | %0                        | %100       | <b>%73</b> |
|                                | <b>%22</b>                | <b>%78</b> |            |

7) Datuak *Euskararen Jarraipena II* (1997) argitalpeneko 10. orrialdean agertzen den iruditik estimatu ditugu. Guraso elebidunen banaketa estimazioa da, beraz.

Taula barreneko ehunekoak hiru (*guraso elebidunak*) eta bi kategorietara (*transmititutako hizkuntza*) ekarri ditugu. Hau da, *transmititutako hizkuntzaz* erabili ohi diren hiru kategoria (euskara, ele biak eta erdara) baino bitara ekarri dugu (euskara/erdara). Izan ere, *erdararen* kasuan ez baita bestelako hizkuntzarik transmititzen; hiztun guztiak erdaldun hutsak dira. Deitutako *euskararen* kasuan ostera, guraso biak elebidunak direnean, haien %80k seme-alabei euskara besterik ez diete transmititzen, %8ak berriaz, euskara eta erdara ere transmititzen diete, bi portzentaia horiek baturik (%88) tauletako balioa lortzen dugu. Guraso euskaldunen gainontzeko %12k seme-alabei erdara soilik transmititzen die.

Gurasoetako bat soilik elebiduna denean, batetik gehiengoak (%66) erdara soilik transmititzen du. Bestetik, pisu bereko bi azpitalde bereiz ditzakegu: bat (%17) euskara soilik transmititzen duena, eta beste %17 erdara soilik transmititzen duena. Oro har, galera joera erakusten bada ere, guraso talde bakoitzaren pisu estatistikoa ikusita galera joera erlatiboki txikia da. Euskal Herri osoari begira, Iparraldekoa larria izanik, transmisioak ikuspegi estatistikoaren arabera ondo funtzionatzen du.

Itxura denez, Euskal Herrian, pertsonen arteko harremanak euskarak bideratzen du neurri handian. *Txillardegik* artikulua honen zirriborroa gainbegiratzerakoan bere azterketa egin du. Jarritako interesa eskertuz eta erakargarria delakoan, hona ekarri nahi dizuegu: *Euskaldunen propor-*

**«Euskararen iraupenerako transmisioa funtsezkoa da; behatutako transmisio tasa, oro har, euskaldunen hizkuntza-leialtasun handia adierazten du; transmisio-tasa hobetzeak gizartearen hizkuntza anisotropia areagotzea dakar. Izan ere, guraso erdaldunak ez baitira gauza euskara transmititzeko»**

tzioa %22,5 ( $e_x = 0,225$ ) baldin bada, **zori hutsez bikoteak antolatuko balira**, biak euskaldunak izateko probabilitatea hau da :

$$p_{xx} = p_x^2 = 0,225^2 = 0,0506$$

Behatzen dena %20 denez,  $0,20 > 0,0506$ , behatutakoa itxaron zitekeena baino askoz handiagoa da; anisotropia gaitza dago.

Bikote «mistoen» kasuan, euskaldun elebidun / erdalduna (xa) eta erdalduna / euskaldun elebiduna (ax), bikoteen probabilitatea hau da:

$$p_{xa} = p_x p_a = 0,255 \times 0,755 = 0,17437506$$

$$p_{ax} = p_a p_x = 0,775 \times 0,225 = 0,17437506$$

orotara, bikote «mistoen» proportzioa %34,875 izatea itxaron genezake.

Behatutako bikote mistoen proportzioa, ostera, %7 besterik ez da izan, aldea begien bistakoa da,  $0,07 < 0,34875$ . Harreman isotropikoak izango balira itxaron zitezkeen bikote mistoak errealitatean behatutakoak baino ia bost bider gehiago izango lirateke.

Txillardegiren ekarpenak eskertuz, hel diezaiozun berriro 1. taulako datuen irakurketari. Taulako bazterkietan agertzen diren portzentaia (bel-tzez gainmarkaturikoak) aztertuz gero, honakoak esan ditzakegu:

- Euskaldunak nahiko endogamikoak dira, izan ere, bi elebidunez osoturiko guraso taldeak biztanleriaren %20 biltzen baitu, euskaldunen orotariko proportziotik (%22,5) oso gertu, hain zuzen ere. Datu honek Euskal Herriko gizartea linguistikoki anisotropikoa dela berretsiko luke.

- Bikote mistoa —euskalduna bata eta erdalduna bestea— delako taldeak ez du pisu estatistiko handirik (%7). Hala ee, probabilitate hutsez estatistikoki beraiegangandik espero zitekeen seme-alaba euskaldunen proportzioa %50 dela hartuz, behatutako proportzioa (%34) ez da gehiegi aldendu portzentaia horretatik. Gainera itxuraz talde horren transmisio-tasa hobetzen ari da gazteenen artean.

Alderdi honetan ondorio bakar bat ekarriko genuke: **euskararen iraupenerako transmisioa funtsezkoa da; behatutako transmisio-tasak, oro har, euskaldunen hizkuntza-leialtasun handia adierazten du; transmisio-tasa hobetzeak gizartearen hizkuntza-anisotropia areagotzea dakar**, izan ere, guraso erdaldunak ez dira gauza euskara transmititzeko.

## HIZKUNTZA-BILAKAERA ETA HIZKUNTZA-GAITASUNA

*Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkestan* hizkuntza-bilakeraz esaten dena hiztun galera eta irabaziei dagokie. Hizkuntza-gaitasuna, berriz, hiztunen ohiko tipologiari dagokio. Hurrengo taula agertu eta gero azalduko dugu.

2. **Taula:** Jatorrizko hizkuntza eta hiztun mota.

|             | Hiztun mota |            |              |            |
|-------------|-------------|------------|--------------|------------|
| Jatorrizko  | Euskalduna  | Elebidun   | Erdaldun     |            |
| Euskaldunak | %5          | %86        | %9           | <b>%19</b> |
| Elebidunak  | %0          | %54        | %46          | <b>%3</b>  |
| Erdaldunak  | %0          | %4         | %96          | <b>%78</b> |
|             | <b>%0,5</b> | <b>%22</b> | <b>%77,5</b> |            |

8) Euskararen Jarraipena (1995), 26, 27 eta 28. or.

9) Soziolinguistika matematikoa (UEU 1.994) (86. or.)

10) Ibidem. 93. or.

11) Ibidem. 99. or.

12) Ibidem. 101. or.

13) Ibidem. 102. or.

Aurreko kontzientzi taulako bazterkiak begiratzuz *jatorrizko euskaldunak* (%19) *elebidun* (%22) bihurtzen direla antzeman daiteke. *Jatorrizko erdaldunak* (%78) deitutakoak puntu erdi bat besterik ez du galtzen. Irakurleei taula irakurtzeko ezkerretik eskumara honako iradokizun hau helarazi nahi genieke: probabilitate modura irakurtzea. Honela, hain zuzen: *Jatorrizko euskaldunak %5eko probabilitatea du euskaldun huts izateko, %86koa elebiduntzeko eta %9koa erdalduntzeko, euskara galtzeko, hain zuzen. Eta, modu berean, gainontzeko kasuetan, adibidez, jatorrizko erdaldunak ez du euskaldun huts bihurtzeko probabilitaterik; elebiduntzeko duen probabilitatea %4koa da eta erdaldun elebakarra izateari eusteko berriz, %96koa du.*

Inkestarena genioenez, iraganaren deskribapena da eta, modu horretan irakurrita, behatutakoa geroari proiektatzen diogu.

Nolanahi ere, irakurtzea dekodatzea izanik, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa ahalik eta argien ulertzeko, hiztunen tipologia zehatza behar dugu. Arestian agertutakoari lotuko gataizkio; inkesten emaitzak jaso eta horren arabera zenbait ondorio atereaz.

| 1                     | 2                             | 3          | 4                          | 5                    |
|-----------------------|-------------------------------|------------|----------------------------|----------------------|
| Euskaldun elebakarrak | (Euskal) elebidun hartzaileak | Elebidunak | Erdal elebidun hartzaileak | Erdaldun elebakarrak |
|                       |                               | 3.1        | 3.2                        | 3.3                  |
|                       |                               | Euskal     | Oreka                      | Erdal                |

• Euskal Herrian **ez dago euskaldun elebakarrik** eta **(euskal) elebidun hartzaileak** (inkestan euskaldun elebakartzat harturikoak) **desagertzeaz** dau-de.

• Erdarak, posible dituen hiztun mota guztiei (3, 4 eta 5) eusten dien bitartean, euskarak legozkiokeen hirutik (1, 2 eta 3) bakarrari eusten dio. **Euskarak hiru hiztun motatik bi galdu ditu** eta, itxura denez, betiko ere galdu.

**«Jatorrizko euskaldunak  
%5eko probabilitatea du  
euskaldun hutsa irauteko,  
%86koa elebiduntzeko eta  
%9koa erdalduntzeko,  
euskara galtzeko hain  
zuzen. Eta modu berean  
gainontzeko kasuetan,  
adibidez, jatorrizko  
erdalduna ez du  
euskaldun hutsa  
bihurtzeko  
probabilitaterik,  
elebiduntzeko duen  
probabilitatea %4koa da  
eta erdaldun elebakarra  
izateari eusteko berriz»**

Honaino iritsita, bertan utziko genuke datuen irakurketa eta analisisa. Irakurlearen esku geratzen da *Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesten emaitzak* (Euskararen Jarraipena —1995— eta Euskararen Jarraipena II —1997—) aztertzea eta ondorioak ateratzea.

## EKARPEN TEORIKOAZ

Aurreneko Euskararen jarraipena (1995) azterlanerako oinarri teorikoak azaltzerakoan bost aipatzen ditu<sup>8</sup> (26., 27. eta 28. or.), hurrenez hurren: hizkuntzaren kemena eta erakarpena (W.F. Mackey-k 1976), Euskararen berreskurapenaren teoriaren soziolinguistikoa eta hizkuntzen teoria soziala (J.M. Sánchez Carrión-ek 1987), Hizkuntzaren etoglosia (J. Cobarrubias-ek 1983), Etnolinguistikazko bizitasuna (H. Giles, R.Y. Bourhis eta D.M. Taylor-ek 1977) eta Galtzeko arriskuan dauden hedapenerako eredua (J. Fishman-ek 1991).

Soziolinguistikaren azken urteotako nondik norakoak, aipatu ikuspegi teorikoei zor bazea ere, badira izan beste ikusmolde batzuk egungo garapenean eta lan horretan bertan eragina izan dezaketenak. Euskal Herriari gagozkiolarik, aipagarriena *Txepetxen* ekarpena dugu, dudarik gabe, bere lanak soziolinguistikaren eremua oldartu egin baitu harik eta berreskurapen prozesuan eragin zuzena izateraino. Dena den, *Txepetxena* aipatua izan da; aipatu ez dena, ordea, Jose Luis Alvarez Enparantza irakaslearen ekarpena da. *Txillardegiren* ekarpena soziolinguistikaren jakintza alorrean ez datorkigu bakarrik berorren ezagutza zabaletik, ez bera euskara batua-aren aitapontetariko bat izan eta bere aldeko lan eskerga egin izateagatik, ezta bere euskaltzetasun sutsua aski ezagunatik ere, berak ekarritako ikuspegi teoriko mardula eta sakonetik baizik. Agian, Jose Luis Alvarez Enparantzaren ekarpen teorikoak ez du halako izenburu ederrik eta, beharbada zientzia gizona izaki, bere zenbakiekiko joerak estali du bere ekarpenaren garrantzia; horretan ote datza ahaztua izatearen arrazoia? Edo, bere jarrera politiko gardenak eraginik izan al du auzi honetan ere? Nolanahi ere, eta urrunago jo gabe, *Txillardegiren* Gizarte elebidunen azterketa matematikoa (UEU, 1984) azterlanetik hasi BAT Soziolinguistika aldizkarian argitaratutako azkeneko artikuluetatik igaro eta bere Soziolinguistika matematikoa (UEU, 1994) argitalpeneraino, *Txillardegiren* ekarpen teoriko joria etengabekoa izan da.

Besteak beste, *Txillardegiren* formulazio matematikoak *Txepetxen* hiztunen *trinkoketaren* frogabidea ekarri du. Baina hori ez da dena, *Txillardegiren* ekarpenak badu eduki eragin zuzena Euskal Herriko soziolinguistikaren garapenean, eta, ez, bakarrik BAT aldizkariaren zuzendaria delako, baita aldaketa esanguratsuak ekarri dituelako ere, euskaldunok euskara urri darabilgunaren ideia kinkan jartzea, esaterako.

Nolanahi ere, hona ekarri nahi genuke *Txillardegik* landutako zenbait kontzeptu eta ideia, gehienak *Soziolinguistika matematikoa* (UEU 1.994) liburutik aterak: *Elebidunak euskaldun hustzat hartzea ez da zuzena; erdaraz ere baitakite*<sup>9</sup>.

Inkomunikazio orokorrean ( $p_{n0}$ ), elebidunen arteko jokabideak ez du inolako eraginik. Ez baita inoiz inkomunikaziorik gertatzen elebidunen erruz. Inkomunikazioa beti da elebakarren ondorioa. Inkomunikazioa elebidunen lepora egozte, zentzugabekeri hutsa da<sup>10</sup>.

Hizkuntzen arteko egoeran, hizkuntzen erabilerak mugatuak dira, erabiler horiek ANTIMETRIKOAK direlako. Elebakarrak eta elebidunak zenbat diren jakinez gero hizkuntzen erabileraren goi-behe mugak zeintzuk diren jakin daiteke.

Hizkuntza gutxiagotuaren elebakarrak desagertu direnean, elebidunen leialtasunak<sup>11</sup> zuzenean eragiten du hizkuntzen erabilera-tasetan. *Euskal Herriari gagozkiolarik, B-ren erabilera azkartzeko (eta, ezinbestean, antimetrikoa delako, A-ren erabilpena ahultzeko) a elebakarren kopurua txikiagotu behar da. Elebidunen artean,  $m_B$  (euskararekiko leialtasuna) handitzea ere mesedagarria da; batez ere,  $e_X$  (elebidunen proportzioa) handia denean. Baina gakoa a erdal elebakarrak dira<sup>12</sup>.*

Hitz batez, oso zaila da (oso bakarka gerta daiteke, bestela esanda) bi hizkuntzen erabilpen-oreka elebidunen jokabidearen bidez lortu ahal izatea<sup>13</sup>. —Bi hizkuntzetan elebakarren multzoak izaten direnean, erantsiko genuke—.

Irakurleak barka biezaigu horren luze eta narrats idaztea. Beste biderik ez dugu aurkitu soziolinguistikan darabiltzagun alderdi bakoitza bere lekuan uzteko. Batetik, teoriak duen garrantzia nabarmendu nahi izan dugu, eta, bestetik, teknika estatistikoen ekarpena azpimarratuz, berreskurapen politikarako neurriko erabilera aldarrikatu nahi izan dugu.

Azken buruan, azken aldiotan sarri esaten den moduan, datorkigun erronkari erantzun ahal izateko, normalkuntza-plangintza orokor bat diseinatzea eta indarrean jartzea ezinbestekoa dugu. Inkestak eta informazio estatistikoa zerbaitetarako izatekotan horretarako dira: horietatik ezer eratorri ezean, erretolioka antzua bihurtzen dira. Euskararen egoera hain korapilotsuagoa baita, eginkizun ugari eta premiazkoak ditugu eta, egia esan, ikerketa hutsaletan aritzeko horrenbeste ahaleginek ez du merezi. Euskaldunon biziraupenerako izan dadila.

---

**«Euskal Herrian ez dago euskaldun elebakarrik *eta* (euskal) elebidun hartzaileak (inkestan euskaldun elebakartzat harturikoak) desagertzeaz *daude*»**